



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

ARRASATEKO UDALAREN ORDENANTZA, ERREGULATZEN DUENA UREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUA

ZIOEN AZALPENA

Edateko uraren hornidura da gutxienezko zerbitzuetako bat, nahitaez eman behar duena udalak, bete dadin bizilagunen eskubidea bizi kalitatea hobetzeko.

Zerbitzua antzinakoa bada ere, zerbitzuak ez dauka udal araudi espezifiko propiorik jardueran sortzen diren arazoei aurre egiteko.

1/2006 Uraren Legearen 34 eta 35 artikuluek azaldutakoaren esparruan, idazten da ordenantza hau, zeinak instituzionalizatzen du abonu edo kontratu poliza zerbitzuaren oinarrizko baliabide gisa, aintzat hartuta horniduraren kontratu izaera.

Horrez gainera, ezartzen dira prestazioaren printzipio orokorrak, eta elementu pertsonal, tekniko eta ekonomikoak, zerbitzuan esku hartzen dutenak.

Ordenantzak betetzen ditu 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, urriaren 1ekoa, 129 artikuluan aipaturiko erregulazio zuzenerako printzipioak.

Behar eta eraginkortasunaren printzipioen ikuspegitik ordenantzak helburu bezala dauka Arrasateko Udala eta Arrasateko udalerrian Ur eta Saneamendu Zerbitzuko abonatuaren arteko erlazioa arautzea, ezarritik alde bakoitzari dagozkion eskubide eta betebeharrak, arautuz aurrez, zerbitzua emateko kontratuak arauturikoa, gehien bat.

Proporzionaltasun printzipioaren ikuspegitik, ordenantzak ezartzen du erregulazio egoki bat bere helburuekin, eta exijitzen du betetzeko obligazioak, beharrezkoak direnak kontratu harremana izateko, kasu batean ere beharrezkoak ez.

Ordenantza kokatzen da ur eta saneamendu zerbitzuen arau erregulatzailen eremuan, eta zehazten ditu toki eremuko berezko arazoak eta errespetatzen du segurtasun juridikoaren printzipioa.

Gardentasun printzipioaren arabera, ordenantza eta hark izan ditzakeen eguneratzeak, eskura egongo da/dira, hurrenez hurren, herritarrentzat, bai paperean bai formatu digitalean.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Efizientzia printzipioa aplikatuz, ordenantza ez du ezartzen administrazio kargarik, beharrezkoak ez direnak edo oinarrizkoak ez direnak, eta razionalizatu eta hobetu nahi du ura moduko premiazko baliabide baten kudeaketa.

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da harremanak erregulatzea Arrasateko Udalaren artean eta Uren Zerbitzuko abonudunen artean, Arrasaten, eta hor zehazten dira alde bakoitzaren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.

2. Artikulua. Arau orokorrak.

Edateko uraren etxeko hornidura zerbitzua egokituko zaie ordenantza honetan xedatzen denari, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren legeriari, une bakoitzean indarrean dagoena, eta Arrasateko Udalak onartuta dituen erregelamenduei eta/edo ordenantzei, baldin eta ez badoaz aurrekoen aurka.

Zerbitzua ematean baztertuta geratu da irabazi asmoa, eta oreka ekonomikoari eutsi behar zaio, tarifak aplikatuz, legez onartuak, ahalbideratzen dutenak zerbitzua autofinantzatzea.

3. Artikulua. Eskumenak.

Ur horniduraren kontzesioa, bere modalitateetan, eta ur zikinak hustu eta tratatzea Arrasateko Udalaren eskumena izango da, zeinak zerbitzuak kontratatuko dituen bere kargura dagokion hornidura kontratuaren bidez eta, halaber, baldintzak erregulatuko ditu zerbitzua burutzeko.

Arrasateko Udalaren ahalmenak izango dira:

1. Obra proiektuak ikuskatzea, edateko uraren hornidurakoak eta saneamendukoak.
2. Txostenak ematea eta, hala badagokio, behar diren aldaketak bultzatzea hirigintza planei eta urbanizazio proiektuei buruz, ur banaketako sareari eta saneamendu sareari dagokienez, dagokion arean, sektorean, poligonoan edo gestio unitatean.
3. Beharrezko instalazio guztiak eraiki, handitu, ustiatu eta mantentzea, ezarrita dauden sare orokorrak eta, baita ere, hornituko diren eraikinak edo ondasun higiezinak, betiere Arrasateko Udalarik badagokio, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Gauza bera saneamendu



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

instalazioei dagokienez, ordenantza honetan eta indarrean dagoen gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan.

4. Informar antes de la recepción de cualquier urbanización por parte del Ayuntamiento en lo que se refiere a la red de abastecimiento y saneamiento, cuando la misma no hubiera sido ejecutada por el propio servicio. Txostena ematea Udalak edozein urbanizazio hartu/onartu aurretik, hornidura eta saneamendu sareei buruz, nola eta sareak zerbitzuak berak egin ez dituenan.

5. Hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea erabiltzaileei, ordenantza honen eta indarrean dagoen gainerako arauen arabera.

6. Txostena ematea eta gainbegiratzea zer baldintza bete behar dituzten proiektatutako obra berriek edo jarduera aldaketek, hornidura eta saneamendu zerbitzuei dagokienez.

7. Txostena eman, tramitatu, gainbegiratu eta, behar izanez gero, exekutatzea lotura berriak hornidura eta/edo saneamendu sare publikoekin, eta hortik datozen lan administratiboak eta ekonomikoak egitea.

8.

Tramite administratiboak, teknikoak eta juridikoak egitea, erabiltzaileekin kontratu harremanak formalizatzeko eta kontrolatzeko.

9.

Fakturatzea unean-unean hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuak, eta ziurtatzea kobrantza.

10. Eskariak, kexak eta erreklamazioak hartu, tramitatu eta erantzutea hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuen inguruan.

4. Artikulua. Abonatua.

Ordenantza honetako ondorioetarako, abonatua izango da hornitutako finkaren titularra. Jarduera lokalak izanez gero, maizterra ere abonatutzat jo daiteke.

5. Artikulua. Erakunde hornitzailea.

Ordenantza honen ondorioetarako, entitate hornitzailea izango da Arrasateko Udala.

6. Artikulua. Estaldura eremua.

Ordenantza hau izaera orokorreaz aplikatuko zaie Arrasateko Udalak ematen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

II. KAPITULUA

ARRASATEKO UDALAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK. ETA ABONATUENAK.

7. Artikulua. Arrasateko Udalaren betebeharrak.

Ordenantza honetan egoera batzuek erregulazio berezi bat badute ere, egoera horietatik sortu baitaitezke betebehar espezifikoak Arrasateko Udalarentzat, hark betebehar hauek izango ditu.

— Orokorrak: Arrasateko Udala, eskura dituen baliabideekin eta bere eskumenaren eremuan, behartuta dago edateko ura abonatuaren hartu-lekuetara eramaten eta kokatzen, betiere ordenantza honen eta gainerako aplikazio xedapenetako baldintzen arabera.

— Betebeharra ura hornitzeko: Estaldura eremuaren barne, definitua 6. artikuluan, Arrasateko Udala behartuta dago ura hornitzen ur eskatzaile guztiei, eta ur hornidura handitzen abonatu guztiei, hala eskatzen badute, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan eta indarrean dauden erregelamendu arauetan jasotako baldintza tekniko eta ekonomikoetan.

— Aurreko pasartean aipatzen diren zerbitzuak emango dira, baldin eta betetzen badira Arrasateko Udalaren inbertsio planetan ezarritako epeak, azpiegiturak eta instalazioak exekutatu eta garatzeko direnak.

— Uraren edangarritasuna: Arrasateko Udala behartuta dago uraren edangarritasuna bermatzen, indarrean dauden osasun xedapenen arabera, pasoko giltzaraino, eraikineko barne instalazio orokorra hasten den lekua.

— Instalazioen kontserbazioa: Arrasateko Udala behartuta dago bere gain mantentzen eta kontserbatzen sareak eta instalazioak, beharrezkoak ura hornitzeko eta saneamendurako.

— Erregulartasuna zerbitzuak ematean: Arrasateko Udala behartuta egongo da erregulartasuna izaten ur horniduran. Edozelan ere, ezin izango zaizkio egotzi zerbitzu horien etenak, ordenantza honetan adierazietako kasuetan.

— Abisu urgenteak: Arrasateko Udala behartuta dago etengabeko zerbitzu bat edukitzen abisuak jasotzeko, eta abonatuak horra jo dezakete edozein ordutan, matxurak jakinarazteko edo informazioa jasotzeko, larrialdietan.

— Erreklamazioak: Arrasateko Udala behartuta egongo da erreklamazio idatziei erantzuten, hirurogei egun baino handiagoa ez den epe batean.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— Tarifak: Arrasateko Udala behartuta egongo da tarifa batzuk aplikatzen ezarrita duen hornidura mota bakoitzari, Arrasateko Udalak uneoro onartuta dituenak dagokion ordenantzan.

Kontsumoa: Arrasateko Udalak sustatu beharko du, zerbitzuko abonatuaren artean, ura aurrezte eta ura zentzuz erabiltzea.

8. Artikulua. Arrasateko Udalaren eskubideak.

Egoera espezifikoei dagokienez Arrasateko Udalak beste eskubide batzuk izan baditzake ere, hark, orokortasunez, eskubide hauek izango ditu:

— Barne instalazioak ikuskatzekoa: Arrasateko Udalak, indarrean dagoen legeriak eskumenak ematen badizkie ere administrazioaren organoei, eskubidea du ikuskatu, berraztertu eta esku hartzeko hornidurako barne instalazioak, ordenantza honek ezarritako mugekin, zerbitzuan badaude edo erabiltzen ari badira.

— Kobraketak fakturazio bidez: Arrasateko Udalak eskubidea du abonatuari arauz egindako fakturazioen edo karguen zenbatekoa jasotzeko.

9. Artikulua. Abonatuaren betebeharrak.

Ordenantza honetan egoera batzuek erregulazio berezi bat badute ere, egoera horietatik sortu baitaitezke betebeharrak espezifikokoak abonatu batentzat, abonatuak, orokortasunez, betebeharrak hauek izango dituzte:

Ordainagiriak eta fakturak ordaintzea: Jasotzen dituen prestazioen truke, abonatuak derrigorrean ordaindu behar dituzte karguak, Arrasateko Udalak uneoro onartuta dituen prezioen arabera, baita ere, zerbitzu espezifikoei datozenak ere, erregulatuta daudenak dagokion ordenantzan.

— Ur kontsumoei dagokienez, derrigorrean ordainduko da ere horiek sortu badira barne instalazioen eraikitze edo kontserbazioa ihes, matxura edo akats baten ondorioz.

— Fidantzak ordaintzea: Abonatuaren batek eskatzen badu hornidura kontratua egiteko, Arrasateko Udalak exijitu diezaiolke fidantza ordaintzeko, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

— Instalazioen kontserbazioa: Hartaz Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezartzen duenaren kalterik gabe, abonatuak egoki eta zuzen erabili beharko dituzte beren zerbitzupeko instalazioak, eta beharrezko neurriak egokituko dituzte horiek kontserbatzeko ahalik eta egokien, sarera ez itzultzeko ur zikinik; gainera, zigiluak bere horretan edukiko dituzte, bermatzeko kontagailua ez



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

dela manipulatu edo, hala badagokio, harguneko instalazioak ez direla manipulatu, eta zigiluak egoera onean edukiko dituzte kontagailua irakurtzeko.

Erraztasunak instalazioak egiteko eta ikuskatzeko: Pertsona bat, hornidura eskatzen badu, behartuta dago Arrasateko Udalari uzteko elementuak jartzen hornidurako jabetzan, baita ere, leku horretara sartzen uzten entitate horrek baimendutako langileei, hala egiaztatzen dutenean, hornidurarekin lotutakoak egiaztatu ditzaten.

— Era berean, behartuta dago lagatzen Arrasateko Udalari lokalak, zigiluak edo arketak, beharrezkoak direnak neurketa ekipoak jartzeko eta, behar izanez gero, elementu lagungarri egokiak jartzeko. Berdin dio nori dagokion horiek ordaintzea eta mantentzea.

— Deribatzea beste hirugarren batzuei: Abonatuak ezingo diete urik laga, inola ere, beste hirugarren batzuei, doan zein ordainduta, ez denbora jakin baterako ez izaera iraunkorrez, eta horniduran iruzurren bat izanez gero, horren arduraduna izango da abonatua bera edo haren menpeko edozein pertsona.

— Matxuren berri ematea: Abonatuak, denen mesederako eta bere mesederako, Arrasateko Udalari jakinaraziko diote edozein matxura edo etete gertatu bada, haien iritziz, banaketa sare orokorrean.

— Erabilerak eta horniduren zenbaterainokoa: Abonatuak obligazioa dute hornitutako ura erabiltzeko kontratuan jasotako eran eta kontratuan jasotako erabileretarako.

— Halaber, behartuta daude eskatzen Arrasateko Udalari dagokion baimena, edozein aldaketa egin gura izanez gero haien instalazioetan.

— Arrazoi horrengatik, neurketa ekipo aldatu behar izanez gero, Arrasateko Udalak baimena izango du hura aldatzeko, beste baldintzarik bete behar izan gabe, eta abonatuak ordainduko ditu sortutako gastu guztiak.

— Hargunean edozein aldaketa egin behar izanez gero, hura egingo du partikularrak, Arrasateko Udalak ezarritako jarraibideez.

— Bajaren berri ematea: Abonatuak baja eman nahi badu hornidura zerbitzuan, hura behartuta egongo da bajaren berri ematen Arrasateko Udalari, eta, kasu guztietan, adieraziko du noiz utzi behar duen hornidura zerbitzua.

— Titularra aldatzen denean edo kontratua subrogatzen denean, udalari jakinaraziko zaio, kontratu berria egiteko.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— Ur emariak berreskuratzea: Abonatuak beren instalazioetan edukiz gero igerilekuak, hozteko ekipoa edo hozteko instalazioak, ura erabiltzen dutenak energia termikoaren eroale gisa, instalazio horietan birziklatze ekipoa jarri beharko dituzte, Eraikuntza Kode Teknikoan agintzen denaren arabera.

— Instalazioak bereizita edukitzea: Finka berean banaketa publikoko urarekin batera ura etortzen bada beste leku batetik, abonatuak arduratuko da urak ez daitezela nahastu.

— Urak direnean banaketa sare publikotik kanpokoak, ordaindu beharko da saneamendu eta arazketa kanona, baldin eta azken destinoa bada udaleko saneamendu sarea-

— Ura erabiltzea zentzuz, ez izateko xahubiderik eta kolaboratzeko Arrasateko Udalarekin ura aurrezteko kanpainetan.

10. Artikulua. Abonatuaren eskubideak.

Egoera espezifikoetarako dagokienez abonatuak beste eskubide batzuk izan baditzaizkete ere, haiek, orokortasunez, eskubide hauek izango ditu:

— Uraren edangarritasuna: harguneetan jasotzekoa, beti lotua instalazioen egoera onari, eta urak izan behar ditu edangarritasun baldintzak, indarrean dauden legeko xedapenetan ezarriak.

— 24 orduko zerbitzua: edateko uraren hornidura etengabe edukitzea, hornidura kontratuan ezartzen diren baldintzen arabera, eta Ordenantza honetan eta gainontzeko xedapen aplikagarrietan ezarritako mugekin baino ez.

— Fakturazioa: jasotzen dituen zerbitzuak fakturatu dakizkion, une bakoitzean indarrean dauden kontzeptuak eta kopurua

— Maiztasuna kontagailuak irakurtzeko: Arrasateko Udalak bisita egingo du, hornidura kontrolatzen duen neurketa ekipoa irakurtzeko.

Fakturazio maiztasuna: jasotzen dituen zerbitzuen faktura egiteko, 3 hileko maiztasun batekin.

– Kontratua: kontratu bat egiteko, idatziz, zeinetan ezarriko diren horniduraren oinarriko baldintzak.

– Barne instalazioak exekutetzea: Abonatuak libreki aukeratu ahal izango dute zein instalatzaile baimendunek exekutatuko dituen barne instalazioak, baita ere, zeinek hornituko duen materiala, zeina egokitu beharko zaien preskripzio teknikoei, arauz galdagarriak direnak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— Erreklamazioak: Erreklamazioa egiteko Arrasateko Udalaren eta haren langileen jardunaren aurka, ordenantza honetan jasota datozen prozeduren bidez. Erreklamazioa denean ur horniduraren baldintzak betetzeari buruz, erreklamazio egileak egiaztatu beharko du hornidura kontratuaren titularra dela, edo haren legezko ordezkaria dela.

— Informazioa: gai guztiak kontsultatzeko, lotuak daudenak zerbitzua ematearekin, funtzionamenduarekin, haren hornidurari dagokionez; halaber,

III. KAPITULUA

INSTALAZIOAK

11. Artikulua. Horniduraren hodi orokorrak.

Hornidura iturrietatik ateratzen direnak eta ura eramaten dutenak tratamendu plantaraino, eta planta horietatik edota beste leku batzuetatik ura eramaten dutenak herriguneetaraino eta ur deposituetaraino.

12. Artikulua. Hornidura arteriak (sare orokorrak)

Hodi orokorretatik edo ur deposituetatik ura hartu eta ura eramaten dutenak herriguneetako sektoreetarantz.

13. Artikulua. Banaketako hodiak.

Harguneko adarretaraino ura eramaten duten sareek osatzen dituztenak.

14. Artikulua. Hargunekoak.

Hargunekoak dira hodi eta elementu batzuk, lotzen dutenak banaketa sarea eta hornitu nahi den finka, lokal, partzela edo instalazioko barne instalazioa Ura hartzeko gailuaren ostean segidan, hartzeko balbula bat ipiniko da.

Hargunekoak elementu hauek izango ditu:

a) Ura hartzeko gailua: jarrita dago banaketa sarearen hodian gainean, eta hargunekoaren pasoa irekitzen du. Zerbitzuak egoki irizten badu, hartzeko giltza bat ipiniko da.

b) Hodi adarra: Hodi zati honek lortzen ditu hartzeko gailua eta ixteko balbula.

c) Ixteko balbula edo harguneko giltza: egongo da hargunekoaren gainean bide publikoan eta eraikinaren ondoan. Manipulatuko du ur zerbitzuak soilik, edo pertsona baimenduak, eta ezingo dute manipulatu abonatuak, jabeek edo hirugarren batzuek. Egon behar da erregistroko arketa



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

batean, behar bezala homologatua, manipulatu edo konpontzeko moduan. Balbula horrek mugatuko du zer den partikularra eta zer publikoa; publikoa izango da giltzatik kalerantz, eta partikularra giltzatik eraikinerantz.

15. Artikulua. Ur hornidurako barne instalazioak.

Ur hornidurako barne instalaziotzat hartuko dira: hodi multzoa eta haren kontrol, maniobra eta segurtasun elementuak, baina, betiere, ixteko balbularen atzetik datozenak, ur fluxuaren zirkulazioaren noranzkoan.

16. Artikulua. Saneamenduko harguneak.

Halako dira hodi multzoa eta beste elementu batzuk, lotzen dituztenak ondasun higiezinako barne instalazioak eta bide hodiak.

Saneamenduko hargune batek, oro har, elementu hauek ditu:

Abio arketa: Arketa dago fatxadaren ondoan edo jabetza partikularraren muga. Arketak erregistratuko du hargune partikularra eta utziko du eroanbidea garbitzen.

Eroanbidea: Hodi zati hau doa abio kutxatilatik lotune kutxatilaraino, estolderia sarean.

Lotune kutxatila: Leku honetan harguneko eroanbideak bat egiten du estolderia sarearekin.

Saneamenduko hargune batek beti izan behar ditu eroanbidea eta bi alde erregistragarriak eremu publikoan, abio kutxatila eta lotune kutxatila lotuta estolderia sareari.

Hargune baten baldintzak finkatuko dira zerbitzatutako jabetza motaren arabera, ebakatu beharreko ur zikinaren ezaugarrien arabera, ur emarien arabera, eta estolderia sarerako lotunearen arabera.

Arau orokor moduan, eraikin, finka edo industria bakoitzak bere hargune independentea izango du. Preskripzioa hori derrigorrean bete behar da, hargunetan uneren batean etxeko ur zikinak joan daitezke eta.

Edozelan ere, eta zerbitzuaren baldintzek hala eskatzen badute, jo daiteke jabetzaren barrualdean batzera etxeko ur zikinaren irteerak, hainbat erabiltzailearenak (etxe uharteak, familia bakarrekoak, eta abar), denentzat hargune bakarra edukitzeko. Kasu horiek berariaz onartu behar dituzte udaleko teknikariek.

Ebakuatutako uraren izgararen arabera, harguneak izan daitezke:



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Euri-urak: Ebakuatutako urak direnean euri-urak bakarrik.

Ur beltzak: Ebakuatutako urak direnean ur beltzak edo asimilatuak bakarrik.

Industrialak: Ebakuatutako urak direnean industrialak bakarrik edo gehien bat (nahastuta joan daitezke ur beltz edo asimilatuekin gehien bat).

Baterakoak: Ebakuatutako urak direnean ur beltzak (edo asimilatuak) eta/edo industrialak, eta euri-urak nahastuta.

Ur guztiak ebakutzen direnean saneamendu hargune batetik, zeinak azkenean isurtzen duen Gipuzkoako ur kontsorzioaren kolektorerara, horiek dira isurketa baimenduak isurketaren erregelamenduak Gipuzkoako ur kontsorzioaren kokektorerara, edo, hala badagokio, baimena dute kolektorerara isurtzeko, emana Gipuzkoako ur kontsorzioak, eta aurretiko edozein tratamendu sistema (arazketa, koipeen bereizketa, solidoen bereizketa eta abar) ez da hargunekoa.

Halaber, ulertzen da ere, hargune batek ebakuatutako ur guztiek, hargune horrek bukaeran ibilgu hidraulikora isurtzen badu, betetzen dituela ur agentziak ezarritako kalitate parametroak, edo, hala badagokio, baimena du ibilgura isurtzeko, ur agentziak emana.

IV. KAPITULUA

BARNE INSTALAZIOAK

17. Artikulua. Baldintza orokorrak

Barne instalazioak, ura hornitzeko, exekutatuak ditu instalatzaile baimendu batek, eta egokituko zaizkio Eraikuntza Kode Teknikoak hartarako preskribitutakoari.

Instalazio horien kontserbazioa eta mantentzea egingo dute uneko horniduraren titularrek.

18. Artikulua. Baimena zerbitzuan jartzeko.

Dokumentazioa eta tramiteak izango dira, beharrezkoak direnak baimena lortzeko barne instalazioak zerbitzuak jartzeko, kasu bakoitzean Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarritako eskakizunen arabera.

19. Artikulua. Barne instalazioen aldaketa.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuen abonatuak behartuta egongo dira jakinarazten Arrasateko Udalari edozein aldaketa eginez gero barne instalazioetako egituraren edo ezaugarrietan.

20. Artikulua. Ahalmena instalazioak ikuskatzeko.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Albora utzi gabe administrazioko erakundeen ahalmena ikuskatzeko, Arrasateko Udalak ikuskatu ahal izango ditu abonatuaren instalazioak, hornidura zelan eta zer baldintzatan erabiltzen duten zaintzeko.

V. KAPITULUA

HARGUNEAK

21. Artikulua. Ematea edo kontzesioa.

Hargunea ematea, edateko ura hornitzeko, Arrasateko Udalari dagokio, zeina, ordenantza honetan ezarritako baldintzak eta gorabeherak biltzen direnean, behartuta egongo den hura ematera, ordenantzako arauen arabera.

22. Artikulua. Ematearen baldintzak.

Ur hornidurako hargune bat emateko, hornidura osoko baldintzak bete behar dira, hemen zehazten direnak:

1. Hornitu behar den eraikina egotea horniduraren estaldura eremuan.
2. Hornitu nahi den eraikinak izatea barne instalazioak, erabiltzeko moduan eta egokituak ordenantza honetako arauari.
3. Hornitu nahi den eraikinak hargunea izatea ur zikinak eta euri-urak isurtzeko, edo edukitzea horien ebakuazio sistema, eta, kasu horretan, baimenak izatea, hartarako beharrezkoak direnak.
4. Kale eta plaza publikoetan, muga daudenak eraikinarekin, edo eraikinak fatxada egiten dituenak, instalatuta izatea eta zerbitzuan, edateko uraren banaketa sarearen eroanbide publikoak.
5. Eraikina hornitu behar duen eroanbidea egotea zerbitzu egoera onean, eta behar besteko gaitasuna izatea hura eramateko.

23. Artikulua. Jardunak estaldura eremuan.

Ordenantza honetako 6. artikuluan zehaztutako estaldura eremuaren barruan, hornidura osoko baldintzak ematen direnean eta hargunea ematea formalizatzen denean, Arrasateko Udalak zehaztuko du non jarri hargunea.

Hornidura berriak ematea hornitu gabeko lekuetan, nahiz eta estaldura eremuaren barruan egon 6. artikuluan zehaztu bezala, edo hor egon arren behar dutenak instalazioak handitu edo aldatzea, beti egongo da horniduraren aukera teknikoaren mende eta Arrasateko Udalaren inbertsio planen mende.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Kasu guztietan, kontsumitu nahi den lekuaren inguruan ez dagoenean banaketa sareerik, Arrasateko Udalak eskatu ahal izango dio eskatzaileari banaketa sarea luzatzeko hargunea lotzea baimentzen den lekuraino. Luzatze hori egingo da espezifikazio teknikoaren arabera, Arrasateko Udalak xedatutakoak, eta eskatzailearen kontura. Obrak bukatutakoan banaketa sarea luzatzeko, zati berria geratuko da Arrasateko Udalaren jabetzan, eta horren truke eskatzaileak ez du kopururik jasoko ordain gisa. Arrasateko Udalak erabili ahal izango du luzapen eraikia, geroagoko hornidurak elikatze eskatzailearen eremuetatik gertuko eremuetan, betiere pasatzen ez badute zati horren eraman ahalmena, hura eraikitze finkatu diren dimentsioen arabera.

Harguneak, ura hornitzeko, Arrasateko Udalak exekutatu ditu, edo hark baimendutako pertsona batek, ordenantza honetan horri buruz ezartzen denaren arabera. Eta ahalmena du ez hornitzeko, baldin eta zuzen exekutatu ez bada, akatsak zuzendu arte.

Nolanahi ere, Arrasateko Udala ez da egongo behartuta ur emari bat hornitzean hura izan dadin presio jakin batekoa.

Behar beste presio eduki ezean ur emari jakin baterako, eskatzaileak berak jarri beharko du sistema partikular bat presioa handitzeko, eta haren mantentze lana egin.

Eraikuntzako Kode Teknikoaren HS4 atalean (ur hornidura) ezarri bezala.

Eskatzaileak eskatzen duenean leku bat hornitu gabea edo behar beste hornitu ez dena, behartuta egongo da ordaintzen, itzuli beharrik gabe eta bere kontura, sarea handitzeak edo aldatzeak sortzen dituen gastu guztiak, sare hori beharrezkoa bada kontsumo eskari berriari erantzuteko.

Arrasateko Udalak ez du inolako obligaziorik izango, sareetan eta instalazioetan egin beharreko aldaketak, luzapenak eta errefortzuak direnean hirigintza jarduerak pribatuen ondorioz, betiere sare eta instalazio horien trazatuak edo kokalekuak badira haientzat traba, oztopo edo zortasuna.

Jarduerak egiten badira poligono eta urbanizazio egin berrien barruan, estaldura eremuaren barnean, salbuetsita egingo dira betebeharretatik eta baldintzatzaileetatik, artikulu honetako aurreko puntuetan ezartzen direnak, eta arautuko dira hurrengo artikuluan ezartzen denaren arabera.

24. Artikulua. Urbanizazioak eta poligonoak.

Ordenantza honetako ondorioetarako, urbanizazioak eta poligonoak izango dira gunek batzuk, horien gainean hirigintza jarduerak eskatzen badu bide edo zerbitzu azpiegitura bat sortzea, aldatzea edo zabaltzea, lursaila banatzen duten lurzatien edo orubeen artean, eta horietatik hiriguneko eremu eraikiarekin egiten dutenak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Urbanizazio eta poligono pribatuen barne sareek, lotzean Arrasateko Udalaren mendeko kanpoko eroanbideekin, berekin eramango dute jartzea kaudalimetro orokor bat poligonoaren sarreran. Kontagailu orokor honi alta emango zaio pertsona fisiko edo juridiko baten izenean, jabeakideek erabakita, eta jarriko da haren kontura. Kontagailu orokor horren helburua da uraren m³-ak neurtzea eta fakturatzeko, urbanizazio eta poligonoetako instalazio pribatuetan behar beste ez mantentzeagatik gertatu daitezkeelako. Fakturatu beharreko m³-ak kalkulatu dira: zer alde dagoen kontagailu orokorrean neurtutako m³-en artean, horiei kenduta banakako kontagailuak, alta emandakoak urbanizazio eta/edo poligonoko sare partikularrean. Hargunea edo hornidura emango da, lehen definitutako poligono edo urbanizaziorako edo han dauden orube edo eraikinetarako, baldin eta betetzen badira aurrez baldintza hauek: a) Barneko banaketa sareak eta gainerako instalazioak, beharrezkoak ura hornitzeko urbanizazio edo poligono horiei, egingo dira Arrasateko Udalak onartutako eskemei jarraituz, eta proiektuan definitu eta dimentsionatuko da, teknikari gaituak idatzia, eta onartua Arrasateko Udalak, jarraituz Arrasateko Udaleko arau teknikoak eta aplikazioko erregelamenduei eta ordenantzei, eta urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura.

b) Las obras e instalaciones definidas en el proyecto aprobado, así como las modificaciones que, con autorización del Ayuntamiento de Arrasate, se introduzcan durante el desarrollo de las mismas, se ejecutarán en su totalidad por cuenta y cargo del promotor o propietario de la urbanización o polígono, bajo la dirección de Técnico competente y, en su caso, por empresa instaladora homologada por la Oficina Territorial de Industria. Arrasateko Udalak exijitu ahal izango du, obrak gauzatu bitartean eta obra onartzean edo zerbitzuan jartzean, bidezkoztat jotzen dituen probak eta saiakerak exekuzio egokitasuna bermatzeko eta proiektuko materialen kalitate espezifikazioak bete direla, eta proba horien gastuak doaz urbanizazioko sustatzailearen edo jabearen kontura.

Urbanizazioko edo poligonoko sustatzaileak edo exekutatzaileak ez du baimenik izango, kasu batean ere, hornidura harguneak egiteko eraikinetan, orubeetan edo partzeletan, Udalak aurrez baimendu barik idatziz.

c) Poligonoen barne sareak lotzea kanpoko eroanbideekin, Arrasateko Udalaren mendekoak, bai eta aldaketak ere, horietan egin beharrezkoak urbanizazioak ezarritako eskari berrien ondorioz, Arrasateko Udalak finkatuko du eta ondo-ondo zehaztuta geldituko dira proiektuan, artikulua



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

honetako a) atalean aipatua, eta exekutatuko dira urbanizazioko sustatzailearen edo jabearen kontura.

Sareak sistema orokor publikoei lotu eta gero, haiek pasatuko dira izatera edo ez izatera Arrasateko Udalarenak, hartutako akordioaren ezaugarrien arabera; baina hark uko egin ahal izango dio jasotzeari eta baimentzeari sistema orokorreari lotzea, obrak ez badira egin irizpide teknikoaren arabera, finkatuak Arrasateko Udalak.

Hornidurak emango dira, landa lurzoruetan edo lurzoru hiritarrezinetan, baldin eta indarrean dagoen hirigintza legeriak baimentzen badu.

25. Artikulua. Ezaugarriak finkatzea.

Harguneen ezaugarriak, hala materialen neurriei, osagaiei, motari eta kalitateari dagokienez, nola exekutatzeko moduari eta lotura guneari dagokienez, Arrasateko Udalak finkatuko ditu, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera, hornitu beharreko eraikina erabiltzeko, aurreikusi daitezkeen kontsumoak eta presio baldintzak, eta espezifikazioak, Arrasateko Udalean jasoak.

Puntu batean eskaria denean hargunea eta/edo banaketa sarea hornitzeko gaitasuna baino handiagoa, ezaugarriak aldatzearen ondorioz gastuak ordaindu beharko ditu eskatzaileak.

26. Artikulua. Eskaerak izapidetzea.

Hargune eskaera egingo dio interesdunak Arrasateko Udalari, eta hark hartarako emango du inprimaki normalizatu bat. Eskaera horrekin batera, gutxienez, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Kokapen planoak, iturgintza, saneamendua eta suteak, hala badagokio.
 - b) Exekuzio ziurtagiria eta gainerako agiriak, beharrezkoak direnak instalazioen tipifikazioaren arabera.
 - c) Jabetza eskritura edo agiria, egiaztatzen duena hargune eskaerako eraikina daukala.
 - d) Obren udal lizentziaren zenbakia eta noiz emana den.
 - e) Dagokion baimena, hargunean trazatuak eragiten dionean jabetza pribatuari.
- Jarduerak, hala errekerituz gero, aurkeztu beharko dute isurtzeko baimenaren eskaera.

Ikusita zer datu ekartzen dituen eskatzaileak, eraikinaren ezaugarriak eta zelan dauden banaketa sareak, Arrasateko Udalak jakinaraziko dio interesdunari, gehienez hogeita hamar egun baliodunetan, eskaera aurkeztu eta handik aurrera, zer erabaki hartu duen, ematea edo ezezkoa ematea eskatutako hargunea edo harguneak eta, azkenik, zergatik eman dion ezezkoa.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Era berean, eskatzaileak epe bat izango du, hogeita hamar egun natural, Arrasateko Udalaren errekerimenduak formalizatzeko, edota haren aurrean alegazioak aurkezteko, bidezkotzat jotzen dituenak. Igarotzen bada epe hori bete barik araututakoa, eskaera joko da bertan behera geldituztat, betebeharrak gehiagorik gabe Arrasateko Udalak.

Eskaera onartuta, Arrasateko Udalak jakinaraziko du, gehienez hamabost egun baliodunetan, zertara egokitu behar den/diren hargunea edo hargunak, eta zer baldintza dagoen emateko eta exekutatzeko.

27. Artikulua. Emakidaren edo ematearen xedea.

Edateko uraren banaketa sareetako hargunak emango dira eraikin bakoitzarentzat, betiere fisikoki eratzen badu eraikuntza unitate independente bat, zuzeneko sarbidea duena bide publikora.

Araututakoa aplikatzeko, eraikuntza unitate independentea da etxebizitzaren eta/edo lokalen multzoa, sarrera atari komuneko dutenak, baita ere, merkataritza eta industria eraikinak, pertsona fisiko edo juridiko bakar batenak badira, non garatzen den industria edo merkataritza jarduera bakar bat.

Lokalak eraikineko unitate independentearen beheko solairuetan badaude, nahiz eta ez izan sarbide komunik, hornitu beharko dira eraikineko kontagailu batera orokorraz.

28. Artikulua. Emakidaren formalizazioa.

Bi aldeek emakidaren baldintzak onartzen dituztenean, akordio horrek ez du eraginik izango harik eta eskatzaileak bete arte betebeharrak ekonomikoak, ordenantza honen arabera derrigorrean bete beharrekoak.

29. Artikulua. Obrak exekutatu eta kontserbatzea.

Hargunak, ura hornitzeko, Arrasateko Udalak exekutatuko ditu, edo hark baimendutako pertsona batek, ordenantza honetan horri buruz ezartzen denaren arabera.

Obrak zangak ireki eta ixteko, bide publikoan edo jabetza pribatuan, obrak erretenak egiteko eta horma eta zoladuretan zuloak egiteko, hargunea egiteko, pertsona ordainduak egingo ditu, kostuak bere kontura eta bere ardurapean bakarrik. Hura exekutatzeko, Arrasateko Udalaren argibideei jarraituko die, beharrezkoak direnak hargunea egiteko.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Eragotzi gabe aurreko paragrafoan ezarritakoa, Arrasateko Udalak obrak exekutatu ahal izango ditu, hor paragrafoan aipatuak, eskatzailearen kontura eta beti hark eskatuta.

Kostua, hargunea egiteko, eskatzailearen kontura doa.

Instalazioa erabili dezakete Arrasateko Udalaren zerbitzura dabiltzan langile baimendunek bakarrik, eta eraikineko jabeak ezingo du aldatu haren egoeraren ingurunea Arrasateko Udalaren baimenik gabe.

Orokortasunez, Arrasateko Udala arduratuko da sarearen mantentzeaz hargune giltzaraino (berdin dio zer distantzia dagoen hargune giltzatik finka pribatuaren mugaraino edo bide publikoaren amaieraraino) eta handik aurrera partikularren ardura izango da.

30. Artikulua. Hargune eskubideak.

Eskubideok dira hargune baten eskatzaileek Arrasateko Udalari ordaindu behar dizkioten diru konpentsazioak, udalak banaketa sareetan handitze, aldatze edo berritze eta hobetze lanetan egin behar dituen inbertsioen balio proportzionala konpentsatzeko, hornidura berria eman aurreko baldintza bertsuetan, eta lehendik zeudenetan ezin murrizketarik gabe.

Harguneak emateko, eskatzaileak ordaindu behar du dagokion prezioa, Arrasateko Udalaren ordenantza fiskalean aurreikusitakoaren arabera. Obra lizentziak jasoko ditu hargunearen ezaugarriak, eta horietan oinarrituta udalak likidatuko du hargune tasa, eragotzi gabe beste gastu batzuk ere sortu daitezkeela exekuzioan bertan.

Hargune eskubideak ordainduko dira behin bakarrik, eta ordaindutakoan, atxikiko zaizkio instalazio, etxebizitza, lokal bakoitzari eta abarri, ordaindu ziren horietan, nahiz eta aldatu haren jabea edo erabiltzailea.

Lehendik zegoen hargune baten sekzioa handitzea, eskatua abonudun batzek, sortuko du kopuru bat, hargune eskatuaren zenbatekoaren eta lehendik zegoenaren artean dagoen aldearen baliokidea.

VI. KAPITULUA

SANEAMENDUA

31. Artikulua. Baldintza orokorrak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Saneamenduko zerbitzuari aplikatuko zaizkio izaera orokorrez ordenantza honetako xedapenak, betiere, izaera espezifikoagatik, hornidura zerbitzuari bakarrik aplikagarri zaizkionak izan ezik, eragotzi gabe ondorengo artikuluetan xedatutako berezitasunak.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, «hornidura», «hornidura edo hornikuntza», «kontsumoak» eta «hornitua» berbak ulertuko da direla, hurrenez hurren, hauek, «ebakuazioa», «saneamendua», «isurketak» eta «ebakuazioa dutenak».

Isurketaren kota izanez gero kolektorean dagoena baino txikiagoa, eskatzailearen kontura izango dira dagokion jasotze ekipoaren instalazioa eta zaintzaren gastuak, eta arau orokor gisa, hura jarriko da eraikinaren edo finKaren barruan.

32. Artikulua. Harguneak.

Saneamenduko hargunea lotuko zaio saneamenduko sareari Arrasateko Udalaren iritziz egokiena den lekuan.

Saneamenduko harguneek bermatu beharko dute horien estankotasuna, diseinatu eta eraikitzen direnean, bereziki haien lotunean saneamendu sarearekin. Arrasateko Udalak exijitu dezake arketak jartzea bai hargunearen abiapuntuan, bai sareari lotzen zaion puntuan, baita ere, arketak egitea emariak kontrolatzeko eta emariak hartzeko, eta dagozkien neurketa sistemak jartzea. Hori guztia exekutatu da Arrasateko Udalaren zehaztapenen arabera. Edozelan ere, saneamendu harguneak proiektatu eta exekutatu beharko dira estrukturalki irauteko, baita ere, garraiatu behar diren uren erasokortasun ezaugarriekin.

Arrasateko Udalak exijituko du berezita jartzea ur beltzen eta euri-uren harguneak, baita ere, horren ondorioz, sare bereziak exekutatzeko eraikinean edo finkan, ebakuazio zerbitzua hartzen duena.

Harguneek, euri-uren sarean, ur beltzen sarean eta sare unitarioan, zehaztuko dute zer den partikularra eta pribatua. Partikularra da arketatik eraikinera doana eta pribatua da arketatik sare nagusira doana.

Horrela, bada, honela deritzo:

Hargune partikularra da, hondakin urak direnean, hoderia tramu bat, zeinak uzten duen komunikatzea hondakin urak jasotzeko barne instalazioa eta lotura arketa udalaren saneamendu instalazioarekin bide publikoan.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Hargune partikularra da, euri-urak direnean, hoderia tramu bat, zeinak uzten duen komunikatzea euri-urak jasotzeko titulartasun partikularreko elementu bat (estalkiko zorrotena, hustubidea edo kanaleta) eta lotura arketa udalaren saneamendu instalazioarekin bide publikoan.

33. Artikulua. Jardunak estaldura eremuan.

Eremuetan ez badago saneamendu azpiegiturarik, edo ez badago nahiko saneamendu azpiegiturarik, erabiltzaileek jo dezakete konponbide berezietara, hala nola hobi septikoak edo beharrezkotzat jotako arazketa sistema, baina betiere proiektua eta exekuzioa egiten eta kontrolatzen baditu teknikari gaitu batek.

Konponbide horiek, bai eta ematen diren baimenek, hala badagokio babesten direnak, izango dute behin-behineko izaera, Arrasateko Udalak ez badauka saneamendu sarerik finkaren inguruan, eta une horretan horiek lotuko dira ordenantza honetan aurreikusitako moduan eta baldintza orokorretan.

Pasartean aurreikusitakoaren ondorioetarako, leku bat saneamendurik gabeko eremutzat joko da, baldin eta hargunea jarri behar den lekuak ez badu hodi biltzailearen sarerik. Halaber, kontsideratuko da leku batek saneamendu azpiegitura urria duela, baldi eta hargunea jarri behar den lekuak ez badauka nahiko garraio kota edo gaitasuna isurketen eskari berriari erantzuteko.

Arrasateko Udala ez dago behartuta ezain etxe instalazio berezirik jaso, garbitu eta saneatzen, ez badago akordioaren bat hori egiteko haren eta instalazio partikularren jabearen artean hondakin urak arazteko, eta halakoren bat egonez gero, begiratuko zaio balioz hitzartutakoari, edo ez bada kontratua dutela ura hornitzeko, eta horiei hustuko zaie beharren arabera eta gehienez ere urtean behin, Udalaren kontura.

VII. KAPITULUA

KONTSUMOEN KONTROLA

34. Artikulua. Neurgailuak.

Eragotzi gabe Eraikuntzako Kode Teknikoak zer ezartzen duen kasu bakoitzean, kontsumoak neurtuko dira kontagailuz, oinarria izango dena edozein hornidura fakturatzeko; baliabide bakarra da kontsumoaren berri emango duena.

Arau orokor gisa, eraikinak zuzeneko sarbidea badu bide publikora, kontsumoa neurtuko da:



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— Kontagailu bakarra: Eraikinean edo finkan etxebizitza edo lokal bakarra badago, behin-behineko horniduretan obretan eta obrak exekutatzeko dauden poligonoetan eta oraindik ez badituzte jaso barneko banaketa sareak.

— Banakako kontagailuen bateria: Etxebizitza edo lokal bat baino gehiago badago, derrigorrezkoa izango da neurgailu bat jartzea horietako bakoitzean, eta behar beste neurgailu zerbitzu komunetan.

Edozelan ere, Arrasateko Udalak jarri ahal izango du, barne instalazioaren hasieran, kontagailu orokor bat, zeinaren egiteko bakarra izango den kontrolatzea instalazio horren kontsumo globalak. Kontagailu honen erregistro datuak, orokortasunez, erabiliko dira detektatzeko zerbait ez badabil ondo barne instalazioan, eta jakinaraziko zaie, hala badagokio, berehala abonudunei, zeintzuk behartuta egongo diren akatsak zuzentzen gehienez 10 egunean.

Arazoa dektektatu eta horren berri eman ondoren, jabeakideen erkidegoari egokituko zaio ordaintzea kontagailu orokorreko datuen kontsumoa, ez dagoena banakakoenak batuta, izan ere, alde horiek izango dira finka barruan egindako kontsumoak.

Industrialdeetan, hargune bakarra badago sektore edo partzela pribatu batean, jabe bat baino gehiago dagoenean, jarriko da kontagailu orokor bat partikularren partzela independentearen muga, partzela edo sektorearen jabeen kontura. Aldeak egonez gero kontagailu orokorraren eta kontagailu partzialen batuketaren artean, hark eragingo du kontagailu partzialen artean.

Kontagailuaren edo kontagailuen ezaugarriak finkatzea, berdin dio zer sistema instalatu den, Arrasateko Udalaren ahalmena izango da. Hala, neurriak eta ezaugarriak finkatuko ditu abonudunak, ikusita zer kontsumo behar duen, eta Eraikuntzako Kode Teknikoan xedatutakoaren arabera.

35. Artikulua. Neurgailuen ezaugarri teknikoak.

Neurgailuen ezaugarri teknikoak, egokituak Europako aruari, hauek izango dira:

a) Kontagailu motak:

Kontagailua ez da jarriko, baldin eta ez badauka egiaztatze berme ofizialik eta/edo jatorrizkorik, Industriako Lurralde Ordezkaritza batean. Arau orokor gisa, kontagailu berriok izango dira R200 motakoak. Kontagailuak muntatuko dira Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera.

b) Aparatuek ezaugarri hauek izango dituzte:



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— Egingo ditu enpresa batek, egiaztatu duena ISO 9001 eta/edo ISO 9002 arauaren ziurtagiria, kontagailuen fabrikazioari buruz.

— Edukitzea CEE homologazioa, R200 klasekoa edo goragokoa.

Egoatea behar bezala margotuta eta egiaztatuta.

36. Artikulua. Kontagailu bakarra.

Jarriko da babes eta maniobra giltzekin batera armairu batean, homologatua Arrasateko Udalak, xede horretarako bakarrik, kokaturik eraikinaren beheko solairuan, sarrerako atariaren ondoan eta fatxadako horman sartuta edo hornitu nahi den jabetzaren itxiturako horman sartuta, eta, edozelan ere, zuzeneko sarbidearekin bide publikotik.

Salbuespenez, behar bezala justifikatzen bada, kontagailu bakarra eta haren maniobra giltzak jarri ahal izango ira ganbara batean, lurzorua mailaren azpian, zeinak zuzeneko sarbidea eduki behar duen kaletik eta egongo den ahalik eta gertuen fatxadatik edo jabetzaren itxuratik.

Kontagailuaren armairua edo ganbara egongo da ondo-ondo iragazgaizturik, eta edukiko du zuzeneko hustubidea estolderiara, gai izango dena ebakutzeko hargunearen gehieneko ur emaria. Halaber, edukiko du ate bat eta sarraila bat, Arrasateko Udalaren ur lantaldearen sarraila zilindroduna.

37. Artikulua. Banakako kontagailu bateria.

Banakako kontagailuen bateriak jarriko dira helburu horretarako bakarrik diren lokaletan edo armairuetan, kokatuak eraikinaren beheko solairuan, guztien erabilera eremuan, zuzeneko sarbidearekin sarrerako ataritik.

Kontagailuak zentralizatzeko bateriak izango dira mota eta eredu onartu eta homologatuak ofizialki.

Gainleho bakoitzaren oinarrian eta banakako kontagailuen bateriaren lotunean bertan, jarriko da erretentzio balbula bat, banaketa sarera ura itzultzea galarazteko.

38. Artikulua. Kontagailuaren jabetza.

Abonudunek eskubidea dute kontagailuak eta beste aparatu batzuk jartzeko, betiere neurgailu horiek badira Arrasateko Udalak homologatutako sistema eta mota batekoak eta ofizialki egiaztatuta badaude aldeko emaitzarekin.

Kontagailuen homologazio zehaztapenak dira 35. Artikuluan jasotakoak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Abonuduna arduratuko da zaintzeaz, neurgailuak eta kontrol gailuak egoki kontserbatzeaz, eta Arrasateko Udala haiek egoki mantentzeaz, manipulatzaz eta berritzeaz, hala badagokio.

Erabiltzailearen kontura jarri eta gero, neurgailuak pasatuko dira Arrasateko Udalaren jabetza izatera.

39. Artikulua. Derrigorrean egiaztatzea.

Aparatuak egiaztatu eta zigilatuko ditu Industriako erakunde eskudunak, laborategi ofizial edo baimendu baten bidez, kasu hauetan:

1. Aparatuaren ohiko martxari eraginez konponketa bat egiten denean, edo exijitu badu zigiluak kentzea.
2. Eskatzen badute abonudunek, Arrasateko Udalak edo administrazio publikoaren erakunde eskudunen batek.

Aparatuak ez baditu betetzen arauzko baldintzak, konpondu eta egiaztatu egin beharko da berriro.

Egiaztatuko dira laborategi ofizial edo baimendu batean, eta helbidean egiaztatuko dira baldin eta Arrasateko Udalaren iritziz posible bada hori egitea laborategietan bezalaxe, haien aparatu eramangarriak erabilia.

40. Artikulua. Zigilu ofiziala.

Laborategi ofizial edo baimenduak zigilatuko ditu kontagailuak edo neurgailuak, egiaztatu baditu.

Zigilu ofizialak, egiaztatu ostean jarria, bermatzen du:

1. Kontagailua edo neurgailua dela sistema onartu batekoa.
2. Erregulartasunez funtzionatzen duela.

Lehen instalazioko kontagailu berrietan, agertuko da, egiaztatze egun moduan, laborategiak egiaztatu izana jatorrizko egiaztatze marka dagoela. Egun horretatik aurrera kontatuko da kontagailuaren bizitzaren denbora, ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Abonudunaren betebeharra izango da kontagailua edo neurgailua zaintzea, baita ere, egoera onean kontserbatu eta edukitzea, eta betebeharrak hori zabaldu dakieke bai kontagailuaren zigiluei, bai haren etiketei. Bete ezean betebeharrak hori, horren erantzulea izango da zuzenean horniduraren abonudun titularra.

41. Artikulua. Kontagailuak aldizka berritzea.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Berritzearen helburua da bermatzea kontsumoen edukiera, onartutako tolerantzien barruan, eta egoera onean edukitzea parkeko kontagailuen funtzionamendua.

Helburu hori betetzeko, ur hotzeko kontagailuek kontrol metrologikoa pasatu beharko dute modeloa onartzeko eta jatorrizkoa egiaztatzeko, zeina egingo den ekainaren 10eko 597/1988 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, erregulatzen baitu CEE Kontrol Metrologikoa, edo arau horrek garatzen dituen erregelamenduek diotena.

Ezaugarri metrologikoei, teknologikoei, inskripzioei, markei eta jatorrizko egiaztapenei buruz, lotuko zaio aipatu araudian xedatutakoari.

Kontagailuen bizitza erabilgarriaren epea izango da 10 urtekoa jartzen denetik aurrera, eta 7 urtekoa kontagailua bada >25 mm. Epe horiek igarotakoan, aldatu egin beharko dira.

42. Artikulua. Laborategi ofizialak.

Laborategi ofizialak dira Eusko Jaurlaritzak instalatuta dituenak kontagailuak eta beste neurgailu batzuk frogatu, egiaztatu eta kontrolatzeko, erabiltzen direnak ur horniduran.

43. Artikulua. Laborategi baimenduak.

Laborategi ofizialetatik aparte, helburu berarekin eta antzeko eraginekin, jarri daitezke beste laborategi batzuk, zeintzuk eduki beharko duten administrazioaren baimena, zeinak arauak emango dituen laborategi horiek baimentzeko eta zuzentzeko.

44. Artikulua. Kontagailuak desmuntatzea.

Kontagailua edo neurgailua konektatuko du edo deskonektatuko du beti Arrasateko Udalak edo pertsona baimendu batek, zeinak zigilatu ahal izango duen haren instalazioa, eta berak bakarrik izango du baimena hura zigilatzeko, ustiapena dela-eta.

Kontagailuak edo neurgailuak desmuntatu daitezke arrazoi hauetako bat izanez gero:

- Industria Ordezkaritzaren erabaki batengatik.
- Hornidura kontratua iraungitzeagatik.
- Neurgailua matxuratzegatik.
- Aldizka berritu behar delako, betiere kontuan hartuta zer ezartzen den ordenantza honetan.
- Kontsumoen erregimena aldatzen bada, goitik edo behetik gaingitzen duenean jarritako aparatuaren gaitasun teorikoa.

Arrasateko Udalaren iritziz aztarna garbiak badaude esateko kontagailuaren edo neurgailua ez dabilela ondo, desmuntatu egin ahal izango du, eta haren lekuan jarri beste bat, ofizialki



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

egiaztatua. Kontsumoak, erregistratu dituenak aurrekoaren ordeez jarritako aparatuak, erabiliko dira horien likidaziorako.

Zelan egin kontagailuak aldatzeko, arrazoiaren arabera:

1. Aldatzea matxura baten ondorioz.

Arrasateko Udalak detektatzen badu kontagailu bat matxuratuta dagoela, aldatu egingo da, Udalaren beraren kontura.

2. Aldatzen bada aldizka berrikustearen ondorioz, hura egingo du Arrasateko Udalak, zeinak bere gain hartuko dituen gastuak.

Abonudunaren instalazioaren egoerak behar duenean kontagailu aldaketa bereziagoa, egoera zaharkituan dagoelako, akatsekin edo irregular dagoelako, Arrasateko Udalak eskatuko dio abonudunari instalazioa konpontzeko, zeina egin beharko duen errekerimenduan bertan ezarritako epean. Ez badu konpontzen esandako epean, kontsumoa estimatuko da, ordenantza honetako 72. artikuluaaren arabera (1. kasua).

45. Artikulua. Kokalekuaren aldaketa.

Instalazioa, zeina oinarrizkoa izango den kontagailuak edo neurgailuak jartzeko, instalatzaile baimendu batek egin beharko du, eraikinaren titularraren kontura eta kargura, eta leku batean beteko dituen arauzko baldintzak, 36. artikulua dioena betez.

Kontagailuaren edo neurgailuaren kokapenean edozein aldaketa egiteko, hornidura atxikita duen esparruaren edo jabetzaren barruan, beti izango da aldaketa egitea bultzatu duen aldearen kontura. Alabaina, abonudunaren kargura izango da kontagailua lekuz aldatzen bada arrazoi hauetakoren batengatik: Abonudunak egindako erreforma obregatik kontagailuaren instalazioa egin eta gerora, hura irakurri, berrikusi edo samur aldatzea eragozten denean.

b) Kontagailuaren instalazioak ez badie erantzuten ordenantza honetako betebeharrei, eta aldaketa bat badago horniduraren titulartasunean.

46. Artikulua. Kontagailua maneiatzea.

Abonudunak edo erabiltzaileak ezingo du inoiz maneiatu kontagailua edo neurgailua, ez eta harguneak konektatu edo desbideraketak egin aparatuaren aurretik, Arrasateko Udalaren baimenik gabe.

47. Artikulua. Likidazioa egiaztatzeagatik.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Neurgailuetako probak egingo dira baldin eta Arrasateko Udalak komenigarritzat jotzen badu edo abonudunak berak eskatzen badu. Alabaina, abonudunak eskatzen badu proba bat egiteko, eta neurgailua egoera onean egonez gero, zerbitzu horrek sortzen dituen gastuak eskatzailearen kontura izango dira. Ulertuko da neurgailua egoera onean dagoela, neurketa akatsak, egonez gero, daudenean araudiak baimendutako tarteen barruan.

Neurgailua ikusi eta egiaztatzen bada txarto dabilela, Arrasateko Udalak dagokion likidazioa egingo du.

Hura frogatu eta egiaztatzen bada kontagailua dabilela akats batekin, baimendutakoa baino handiagoa, zehaztuko da zer kopuru itzuli behar den, kontuan hartuta benetan egindako kontsumoak, likidazioa atzeratu behar den hilabeteetan indarrean zeuden tarifen arabera.

Aurreko pasartean aipatzen den denbora ezarriko da kontagailua instalatu zen egunetik aurrera, edo haren azken egiaztatze egunetik aurrera, markaketan errorea egiaztatu den egunera arte. Denbora hori inoiz ez da izango bi hiru hilekoa baino luzeagoa.

Egiaztatzen bada kontagailua txarto dabilela karga bat baino gehiagorekin, udalak itzuli beharreko kopuruaren likidazioa egingo da aurreko pasartean zehaztutakoaren tarte berdinerako.

Prozesua frogatu eta egiaztatzen bada aparatu bat manciatu egin dela iruzur egiteko, egiaztatzaileak akta jasoko du, ordenantza honetako 72. artikulua ezarritako ondorioetarako.

48. Artikulua. Ordeztea.

Konpondu, aldizka berritu eta/edo egiaztatzearen ondorioz instalazioko kontagailu bat edo neurgailu bat eraman behar bada, eta berria ez bada jartzen berehala, haren ordez beste kontagailu edo neurgailu bat jarriko da aldi berean, behar bezala frogatuta, zeinak kontsumoak kontrolatuko dituen.

Instalatu den kontagailu edo neurgailu berri hori beti izango da Arrasateko Udalaren jabetzakoa. Alabaina, kontagailu ordeztua edo aldatua abonudunarena bada, baldin eta deklaritzen badute erabiltzeko moduan dagoela konpondu, aldizka berritu eta/edo frogatu ondoren, eta abonudunak jarraitu nahi izanez gero erabiltzen bere instalazioan, berriro instalatuko du Arrasateko Udalak abonudunaren kontura, balio aldia edo bizitza erabilgarria amaitu bitartean

49. Artikulua. Gastuak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Egiaztatzen denean aldeetako batek eskatuta, haren gastuak, sortzen diren kontzeptu guztienak, eskatzailearen kargura izango dira, ez bada demostratu dela aparatua txarto dabilela eta akatsa beste aldearena dela.

VIII. KAPITULUA

UR HORNIDURAREN BALDINTZAK

50. Artikulua. Horniduraren izaera.

Uraren erabileraren arabera, horniduraren izaera honela sailkatuko da:

— Kontsumoak etxean erabiltzeko.

Kontsumoak etxean banaka erabiltzeko kontsideratuko dira etxebizitzetan edo esparruetan egiten direnak, haiek edukiz gero lehen erabilerako lizentzia eta bizitegi erabilera.

Kontsumoak etxean banaka erabiltzeko.

Kontsumoak etxean erabiltzeko bizilagunen erkidegoetan, neurtuak kontagailu orokor batek.

Kontsideratuko dira etxean erabiltzeko bizilagunen erkidegoetan, neurtuak kontagailu orokor batek, etxebizitzetan edo esparruetan egiten direnak, horiek edukiz gero lehen erabilerako lizentzia eta bizitegi erabilera, eta abonuduna bada finkaren jabea, etxebizitza bat edo jabeen erkidego bat baino gehiagorekin.

— Kontsumoak nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako.

Kontsideratuko dira kontsumoak nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenetan egiten direnak, eta dagokion lizentzia daukatenak jarduera hori egiteko.

— Kontsumoak industria, merkataritza erabileretarako eta gainerako kontsumoak.

Kontsumoak jarduera orokorretan erabiltzeko.

Kontsumoak ostalaritzako jardueretan erabiltzeko.

Kontsumoak obrak eraikitzeko.

Kontsumoak ureztatze sisteman eta igerilekuan erabiltzeko finka partikularretan.

Kontsumoak udalek, haien bulegoek, udal entitateek eta udal kudeaketako lanak egiten dituen enpresa pribatuek erabiltzeko.

Etxebizitza edo esparru batean, aurreko pasartean aipatuak, aldi berean egiten bada bizitegi erabilera bat eta jarduera bat ematen bada, kontsideratuko da horniduraren guztia jarduera erabilerarako.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Tendrán la **consideración** de **suministros** para usos no domésticos los **destinados** al abastecimiento de locales de negocio o **industrias** para cuyo **ejercicio** se precise el alta en I.A.E, o los pertenecientes a las **administraciones públicas** y sus organismos, que por su uso no estén comprendidos en otros, **independientemente** de que desarrollen sus **actividades** en locales **comerciales** o en locales **destinados** a vivienda que el **ordenamiento** permita su uso como **actividad**.

Hornidura etxean ez erabiltzeko kontsiderazioa izango dute negozio edo industria lokalak hornitzeko direnak, haien jarduera burutzeko behar denean altan egotea JEZn, edo administrazio publikoen eta haren erakundeen jabetzakoak hornitzeko direnak, haiek erabiltzeagatik ez daudenak sartuta beste batzuetan, haien jarduerak egiten badituzte ere merkataritza lokaletan edo etxebizitzarako lokaletan, antolamenduak baimentzen badu haiek erabiltzea jarduera moduan.

Kontsiderazio berbera izango dute hornidurek garaje partikularretan, trastelekuetan eta oro har jarduerarik ez duten lokaletan.

Hornidura moduan obrak burutzeko, kontsideratuko dira eraikuntza edo erreforma beharrei erantzutekoak, eta, oro har, edozein obra burutzeko direnak. Hornidura horiek emango dira, kasu guztietan, denbora mugatu baterako eta prekarioan, hornidurak baldintzaturik biztanleriaren behar orokorrek.

Finka partikularretan ureztatze eta igerilekuen erabilerarako hornidura kontsiderazioa izango dute hartarako ematen direnak edozein finka partikularretan, sartuta egon edo ez hartan etxebizitza bat edo etxebizitza multzo bat, industria eta abar.

— Kontsumoak suteen aurka borrokatzeko.

Hornidura, suteen aurka borrokatzeko, kontsiderazioa izango dute helburu horretarako kontratatzen direnak.

Hornidura batek udalen kontsumorako horniduraren kontsiderazioa izango du, titularra udala denean edo parte hartzen duen mankomunitatea denean.

Nolanahi ere, hornidura horiek emango dira baldin eta aukera badago instalazioetan, hornikuntza eskatzen den puntuan, eta biztanleriak behar orokorrak izanez gero eta, edozelan ere, emango dira prekarioan eta denbora muga batekin

51. Artikulua. Hornidura bereizituak.

Edozelan ere, eraikin bakoitzean izan litezkeen merkataritza lokalek edo negozio lokalek eduki beharko dute hornidura independente bat.

52. Artikulua. Hornidurak suteen aurkako zerbitzuarentzat.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Suteen aurkako instalazioak eraikinen barnean, edozein izanik ere horien xedea edo erabilera, beharko dute ur hornidura bat ezartzea erabilera horretarako bakarrik eta ordenantza honek, ohiko hornidura egiteko, instalazioetarako agintzen dituen baldintzak betetzea, ondorio guztietarako, irizpide hauen arabera:

1. Instalazioak bereizita edukitzea: Suteen aurkako instalazioak guztiz bereizita egongo dira beste edozein helburutarako direnetatik, eta horietatik ezingo da desbideraketarik egin beste erabilera baterako.

Era berean, debekatuta dago ura hartzea instalazio horietako edozein lekutatik, suteetan izan ezik, Arrasateko udalaren baimenik gabe.

Suteen aurkako araudi bereziak exijitzen duenean presio bat abonudunaren jabetzako barneko instalazioan Arrasateko Udalak bermatzen ez duena, abonudunaren erantzukizuna izango da gailuak ezartzea eta kontserbatzea presioa handitzeko, lehen aipatutako araudi berezi hori bete ahal izateko.

Ura, suteetarako hargunearen bidez kontsumituz gero, fakturatu egingo da. Horretarako, kontagailu bat jarri behar da, turbina tangenzialeko.

2. Horniduraren kontratazioa: Suteen aurkako hornidura baten banaketako sare publikora konektatzeko, aurrez sinatu beharko da hornidura kontratua, Arrasateko Udalaren eta abonudunaren artean.

Kontratu horiek edukiko dute hornidura arruntaren tramitazio eta izaera berbera, eta, hortaz, bete beharko dituzte haien arauzko preskripzio berberak.

Arrasateko Udalak ez du inolako erantzukizunik suteen aurkako instalazioen instalazio partikularren funtzionamenduaren kalkuluari, diseinuari eta egoerari buruz.

IX. KAPITULUA

HORNIDURA EMAN ETA KONTRATATZEA

53. Artikulua. Hornidura eskatzea.

Hornidura kontratatu aurretik, interesdunak aurkeztu beharko du hornidura eskaera bat, Arrasateko Udalak hartarako emango duen inprimakian.

Eskaera orrian jasoko dira eskatzailearen izena, eskatutako urari zer erabilera eta xede eman nahi dion eta gainerako gorabeherak, behar direnak horniduraren ezaugarriak eta baldintzak



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

zuzen definitzeko, baita ere, zerbitzugintzari dagozkion tarifak aplikatzeko. Inprimaki horretan jasoko da, era berean, zer helbidetara igorri behar diren komunikazioak, horniduraren helbide bera ez denean.

Adingabe emantzipatugabeek ezingo dute kontratatu. Emantzipatuek egiaztatu beharko dute haien egoera emantzipazio agiriaren bidez, sinatua notarioaren aurrean.

Hornidura eskaeran jasotzen diren gorabeherak, lehenago erregelatua, egingo dira eskatzailearen erantzukizunarekin, eta erabiliko dira oinarri moduan hornidura horren baldintzak erregulatzeko.

Hornidura eskaerarekin batera, interesdunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

a) Etxebizitzetako abonudunak:

— Jabetzako eskritura, errenta kontratua edo agiri bat, egiaztatzen duena eskubidea duela hornidura egin nahi den eraikina erabiltzeko.

— Agiria, egiaztatzen duena kontratatzailearen nortasuna.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako abonudunak.

— Ustiatze lizentzia.

— Jabearen baimena.

c) Merkataritzako, industriako eta gainerako abonudunak:

— Lizentzia edo alta eskaera JEZn, edo jardueraren lizentzia, hala badagokio.

— Jabetzako eskritura, errenta kontratua edo agiri bat, egiaztatzen duena eskubidea duela hornidura egin nahi den eraikina erabiltzeko, jabearen baimenarekin batera. Agiria, egiaztatzen duena kontratatzailearen nortasuna.

Etxebizitzak edo lokalak lehenengoz okupatzekoak badira edo barne instalazioak aldatu badituzte, ezinbestekoa izango da instalatzailearen buletina aurkeztea, ikus-onetsia Industria Ordezkaritzak.

54. Artikulua. Aldi baterako hornidurak.

Arrasateko Udalak aldi baterako baimena eman dezake hornitzeko, behin-behineko harguneen bidez. Hornidurok emango dizkie diskrezionalki hala eskatzen duten interesdunei. Hornidura horien indarraldiaren gehieneko epea izango da hiru hilekoa. Kontratatu beharreko bolumena Arrasateko Udalak zehaztuko du, eta ez da izango eguneko 5 m³ baino txikiagoa. Aldi baterako hornidurek ordainduko dute egindako kontsumoaren arabera, eguneko 5 m³ gutxienez.

Fakturarako, lan parte bat egingo dute udal zerbitzu teknikoek.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Behin-behineko hargunea egingo du pertsona baimendunak, lekuan bertan, eta Arrasateko Udalak esandako baldintzekin, ezelan ere utzi barik ura libre joaten. Behin-behineko harguneak erabiltzeari uzten dioten bakoitzean, egon behar dira ondo-ondo itxita, ura alperrik galdu barik. Leheneratzeko gastuak, sortu direnak kalteak eragiteagatik behin-behineko harguneetan oker erabiltzeagatik, pertsona baimendunaren kontura doaz, eta erantzungo du jarritako fidantzak.

Kontagailua egon behar da hodiaren gainean. Instalazio hori egingo da pertsona baimendunaren kontura, eta behar du zaintza eta segurtasuna ez lapurtzeko, kaltetzeko edo edozein ezbehar ez izateko instalazio horiek txarto jartzeagatik. Kontagailuak kontuan izan beharko ditu ordenantza honetan ezarritako baldintzak.

Baimendunak baimen agiria erakutsi beharko dio Arrasateko Udaleko langileari, edo hark baimendutako langileari, baita ere, udaltzaingoko kideei, hala eskatuz gero.

Ikuskatzearen ondorioz egiaztatzen bada ura alferrik galtzen dela edo ura ez dela egoki erabiltzen, hornidura iraungi egingo da. Baimendunak babestu eta kontserbatuk beharko du behar bezala hornidura erabiltzen dituen hodiak eta mahukak, ihesik ez egoteko.

Baimendunak lekuz aldatu behar badu hargunea, aurrez eskatu egin beharko du, eta eskaeran jaso behar ditu kokaleku berria eta kontagailuaren irakurketa une hartan.

55. Artikulua. Kontratazioa.

Hornidura eskaera bat egin ondoren, Arrasateko Udalak egingo du dagokion hornidura kontratua, betiere betetzen badira baldintza teknikoak, finantzakoak eta abar. Hornidura kontratu edo poliza horrek ez du indarrik izango eskatzaileak ez baditu bete obligazio ekonomikoak, teknikoak eta administratiboak, ordenantza honen arabera derrigorrean bete edo ordaindu behar dituenak.

56. Artikulua. Kausak kontratuari ezezkoa emateko.

Ur hornidura emateko ahalmena dagokio Arrasateko Udalari, indarrean dauden arauzko arauen arabera.

Arrasateko Udalak ezezkoa eman ahal izango dio hornidura kontratatzeari kasu hauetan:

1. Hornidura eskatzen duen pertsonak edo entitateak uko egiten badio kontratua sinatzeari, zeina egin den eredu baimenduaren arabera eta ur hornidura kontratatzeari buruz indarrean dauden xedapenen arabera, edo ez baditu aurkezten nahitaezko agiriak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

2. Eskatzailearen instalazioan ez badira bete, Arrasateko Udalaren iritziz eta egiaztatu ondoren, indarrean dagoen araudiak ezarritako preskripzio orokorrak. Kasu horretan, Arrasateko Udalak adieraziko dio eskatzaileari zer akats aurkitu dituen, zuzendu ditzan.

3. Ez badauka hargunerik ura hornitzeko edo ez badauka baimenik isurtzeko hondakin urak eta euri urak.

4. Hornidura eskatzen den lokalerako ez badago aurrez eta indarrean beste hornidura kontratu bat.

57. Artikulua. Kontrataziorako kuota.

Konpentsazio ekonomiko bat da, ordaindu beharrekoa ur hornidura eskatzeagatik Arrasateko Udalari, kostu teknikoak eta administratiboak ordaintzeko, kontratua formalizatzearen ondorioz.

58. Artikulua. Hornidura kontratua.

Arrasateko Udalaren eta abonudunaren artean harremana erregulatuko du hornidura kontratuak edo abonu polizak, aldi baterako horniduretan izan ezik, dagokion baimenak erregulatuko baititu.

Hornidura kontratua izango da agiri bakarra fede emango duena hornidura eman izana, eta ordenantza honetan ezarritako baldintzekin batera, harremanak erregulatuko ditu Arrasateko Udalaren eta abonudunaren artean. Kontratu hori formalizatuko da idatziz eta bi aletan, eta entregatu beharko zaio ale bat beteta abonudunari.

59. Artikulua. Egin beharreko kontratuak.

Kontratuak ezarriko dira hornidura mota bakoitzerako, eta, horrenbestez, derrigorrean egin behar dira kontratuak bereizita, tarifa edo baldintza bereziak aplikatu behar diren kasu guztietarako.

60. Artikulua. Kontratuaren subjektuak.

Hornidura kontratua sinatuko dute Arrasateko Udalak eta hornitu beharreko finka, lokal edo industriaren erabilera eskubidearen titularrak, edo haren ordezkariak.

61. Artikulua. Subrogazioa.

Ordainketa polizaren titularra hiltzen bada, haren ezkontideak, ondorengoek, seme-alabatzako osoek, aurrekoek eta neba-arrebek, bizi ohi zirenak etxebizitzan, gutxienez bi urtez hil baino lehen, subrogatu ahal izango dituzte polizaren eskubideak eta betebeharrak. Nolanahi ere, ez da



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

derrigorrezkoa izango elkarbizitzaren bi urteak betetzea hildakoaren guraso-agintean egon zitezkeenentzat, ez eta ezkontidearentzat ere.

Halaber, subrogatu daiteke beste edozein oinordeko legatudun, betiere kausatzailearen oinordekoa izan behar bada hornidura egiten den etxebizitzaren edo lokalaren jabetzan edo erabileran.

Entitate juridikoa bada, eskubide eta betebeharretan subrogatu edo ordeztzen duenak berdina egin dezake abonu polizan, baina Arrasateko Udalean aurkeztu beharko ditu beharrezko administrazio baimen guztiak.

62. Artikulua. Kontratuaren xedea eta zenbaterainokoa.

Hornidura kontratuak formalizatuko dira etxebizitza, pisu, lokal, industria edo unitate independente bat osatzen duen obra bakoitzerako.

Hornidura bakoitza atxikita egongo da eman zeneko helburuei, eta, beraz, debekatuta dago beste helburu batzuetarako edo haren zenbaterainokoa aldatzeko; horretarako, baina, eskaera berri bat egin beharko da eta, hala badagokio, legokiokoen kontratua.

63. Artikulua. Kontratuaren iraupena.

Hornidura kontratua sinatuko da denbora mugagabez, ez bada berariaz ezarri dela beste izaera batekin. Alabaina, abonudunak bukatutzat eman dezake edozein unetan, betiere jakinarazten badio erabaki hori Arrasateko Udalari.

Obretarako hornidurak, aldi baterako ikuskizunak lokal mugikorretan, eta oro har, noizbehinkako jardueratarako, betik baimenduko dira denbora jakin baterako.

64. Artikulua. Kausak hornidura eteteko.

Arrasateko Udalak, eragotzi gabe indarrean dagoen legeriak babesten duela ekintza zibil edo administratiboak erabiltzea, hornidura eten ahal izango die bere abonudunei kasu hauetan:

- a) Ez ordaintzeagatik behintzat 2 ordainagiri, premiamenduzko bidean daudenak.
- b) Erabiltzaile batek hornidura duenean kontraturik gabe, idatzita bere izenean, eta uko egiten badio sinatzeari Arrasateko Udalak errekerituta, eten egingo zaio berehala.
- c) Ordaintzen ez direnean hamabost egun balioduneko epean, jakinarazten den egunetik aurrera, iruzurreko likidazio irmotik ateratako kopuruak, edo frogatzen bada horretan berriro erori dela.
- d) Abonudunak ur hornitua erabiltzen duen kasu guztietan, kontratatutakoak ez beste erabilera batzuetarako.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

e) Abonudunak deribazioak ezartzen dituenean edo ezartzea uzten duenean bere instalazioan ura hornitzeko beste finka, lokal, edo etxebizitza batzuei, bere hornidura kontratuan datozenak ez beste batzuei.

f) Arrasateko Udaleko langileek aurkitzen dituztenean deribazioak sareetan, ur kontsumoekin ur kontraturik gabe, hau da, ezkutuan eginak. Kasu honetan, Arrasateko Udalak berehala eten ahal izango du ur hornidura deribazio horietan.

g) Abonudunak ez dienean uzten sartzen langileei lokalean, kontratatutako hornidurari eragiten diona, ordu baliodunetan edo kanpokoekin harreman normaleko orduetan, zeina, entitateak baimendurik eta nortasun agiria duela, saiatzen den instalazioak berraztertzen, eta kasu horretan beharrezkoa da Arrasateko Udalak akta jasotzea gertatuen gainean.

h) Abonudunak ez duenean betetzen, edozein alderditan, entitatearekin ezarrita duen kontratua edo ez dituenean betetzen baldintza orokorrak zerbitzua erabiltzeko.

i) Horniduretan, urari ematen zaion erabileragatik edo barneko instalazioen egiturarengatik, uraren edangarritasuna kaltetu daitekeenean banaketa sarean, abonudunek neurriak hartu arte, halako egoerarik ez gertatzeko; halako kasu batean, Arrasateko Udalak berehala eten ahal izango du hornidura.

j) Abonudunak uko egiteagatik kontagailuaren erregistroa edo kutxeta aldatzeari, baita ere, bere barne instalazioari, beharrezkoa denean kontagailua aldatzeko, ordenantza honek baimentzen duen edozein kausarengatik.

k) Abonudunak nahasten dituenean beste leku batetik datozen urak, eta Arrasateko Udalak errekerituta akats hori ezabatu dezan, ez duenean hori egiten gehienez ere bost eguneko epean.

l) Hamabi hilean jarraituz gero ezinezkoa dela irakurri hartarako ezarritako erregimen normalean, kausa bada abonudunari egotzi dakioketena, Arrasateko Udalak hornidura eten ahal izango du, aldi batez, abonudunak onartu arte aldatzea neurgailuaren instalazioa, bere kontura eta kargura, eta zaildu ez dezan hara sartzea kontsumo irakurketa egin ahal izateko.

Abonudunaren utzikeriagatik, bere instalazioetan matxurak konpontzeari buruz, baldin eta, Arrasateko Udalak idatziz jakinarazita, igarotzen bada epe bat zazpi egun baino luzeagoa matxura konpondu barik.

65. Artikulua. Eteteko prozedura.

Berehala eteteko kasuetan izan ezik, ordenantza honetan aurreikusiak, Arrasateko Udalak jakinaraziko dio erabakia abonudunari. Jakinarazi eta 10 egun baliodun igarota jarraitzen badu egoera ez normalak, hornidura eten egingo da.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Gertatzen bada hornidura eten zaiola ez duelako ordaindu zerbitzua ematearen tasa, hornidura eten aurretik jakinaraziko zaio abonudunari zer egoeran dagoen, gehienez ere 10 eguneko epean ordainketak erregularizatu ditzan.

Komunikazioak, baina, sartu behar du zer kopuru duen zorretan, epea eta ordainbideak.

Zerbitzua berrezarriko da, zerbitzua eten eta egoera hori erregularizatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, eta gehienez ere 7 egunean.

Aldez aurreko jakinarazpenak, hornidura eten egin dela adierazteko, jasoko du gutxienez puntu hauek:

- Abonudunaren izena eta helbidea.
- Zergatik sortu den etena.

66. Artikulua. Hornidura kontratua iraungitzea.

Ur hornidurako kontratua iraungiko da, eragotzi gabe ekintzak exekutatu daitezkeela edo ez hornidura eteteko, zehaztuak ordenantza honetako 67. artikuluan, arrazoi hauetako batengatik:

1. Abonudunak eskatuta.
2. Entitate hornitzaileak erabakita, kasu hauetan:
 - a) Hornidura eteteko edozein kausarengatik, erregulatuak ordenantza honetako 64. artikuluan.
 - b) Hornidura kontratuaren baldintza betetzeagatik.
 - c) Zerbitzua kontratatu zeneko zerbitzuen eta instalazioen erabilera aldatzeagatik, baita ere, hornidura kontratatu zeneko finka bota, handitu edo erreformatzeagatik.

Kontratua iraungitzeagatik edo abonuduna hiltzeagatik, betiere oinordekoek ez badituzte eguneratzen kontratuaren datuak.

Lehen adierazitako edozein kausarengatik kontratua iraungitzen denean, hornidura hasiko da berriro, eskaera berri bat egiten bada, kontratu berri bat sinatzen bada eta dagozkion eskubideak ordaintzen badira.

X. KAPITULUA

ERREGULARTASUNA HORNIDURAN

67. Artikulua. Jarraitzea zerbitzuan.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

Ezinbestean ez bada edo matxura ez badago instalazio publikoetan, Arrasateko Udalak obligazioa du zerbitzua etenik gabe mantentzeko, betiere kontrakoa ez bada agertzen hornidura kontratuetan edo polizetan.

68. Artikulua. Aldi baterako eteteak.

Arrasateko Udalak eten ahal izango du zerbitzua aldi baterako, ezinbestekoa denean bere kargura dauden instalazioen mantentze, konpontze edo hobetze lanak egiteko. Etenaldi aurreikusitakoetan eta programatutakoetan, Arrasateko Udalak ohartarazi beharko du bere eskura dauden baliabideez, 24 ordu lehenago, erabiltzaileei etenaren berri eman izana bermatzeko.

69. Artikulua. Ur erreserbak.

Eragotzi gabe sektore bakoitzaren erregulazio espezifikoez zer ezartzen duten, edozein jarduera mota egiten den lokal guztiek, non ura behar ezinbestekoa eta iraunkorra dena, osasun publikorako edo pertsonen eta ondasunen segurtasunerako, eta, bereziki, ospitaleetan, produktu sukoiaren eta erregaien biltegietan, eta merkataritza zentro handietan, eduki beharko dituzte erreserbako ur deposituak, hornikuntza autonomia bat ziurtatuko dutenak, bat datorrena estali behar diren gutxienezko beharrekin, eta behintzat hogeita lau ordu baino txikiagoa ez den denbora baterako.

Era berean, industrietan edo jardueretan beren ur erreserbak dimentsionatu eta ezarri beharko dituzte, ura denean ezinbesteko elementu bat produkzio prozesuan edo jardueran, ziurtatu egon dadin gutxienezko autohornikuntza, behintzat hogeita lau orduan.

70. Artikulua. Murrizketak horniduran.

Lehortek, ur emariaren urritasunak edo trataerako zailtasunak hala eskatzen badute, Arrasateko Udalak murrizketak ezarri ahal izango ditu abonudunei ur zerbitzua hornitzean.

Kasu honetan, Arrasateko Udala behartuta egongo da abonudunei informatzen, ahalik eta modurik argienean, ezarri behar diren neurriak buruz, baita ere, horiek noiz hasiko diren ezartzen, hedabideen bitartez. Ezin badu egin hedabide horien bidez, entitateak jakinarazi beharko du gutun pertsonalez abonudun bakoitzari.

Hornidura eteten bada ez dagoelako emari nahikoa erabiltzaileen beharrei erantzuteko, jarraituko zaio kontratatutako erabilera modalitateari, eta ur hornidura eten egingo da, Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan edo, hala badagokio, EAEko Plan Hidrologikoan adierazitako aprobeixamenduen lehentasunaren alderantzizko hurrenkeran.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

XI. KAPITULUA

IRUZURRAK UR HORNIDURAN

71. Artikulua. Iruzurraren definizioa.

Arrasateko Udalak iritziko du iruzurrak daudela, kasu hauetan:

1. Ez egotea kontraturik edo baimenik ura hornitzeko.
2. Edozein prozeduraren bidez, maneiatu edo aldatu izana kontagailuaren erregistroa edo neurgailua.
3. Emari deribazioak egin izan, emari iraunkorra edo zirkunstantziala, neurgailuak baino lehen.
4. Ura erabili izana kontratatu edo baimendutakoak ez diren erabilerak egiteko, eraginda kontsumoen fakturazioari, aplikatu beharreko tarifaren arabera.

Arrasateko Udaleko langileek deribazioak aurkitzen dituztenean sareetan, hornidura erabiliz kontraturik gabe, hau da, ezkutuan eginda, ur hornidura eten ahal izango da berehala, deribazio horietan.

Baldin eta, pertsonal fakultatiboa doanean iruzur salaketa bat egiaztatzen, ez bazaio uzten sartzen abonudun baten etxera, helbidera, eten ahal izango da hornidura.

72. Artikulua. Likidazioa iruzur egiteagatik.

Arrasateko Udalak dagokion likidazioa egingo du, kasuen arabera, honela:

— 1. kasua. Likidazio bat egingo da iruzur egiteagatik, zeinak jasoko duen kontsumo bat kontagailuaren kapazitate nominalaren baliokidea, legokiekeena arauz iruzurrezko egintzarako erabilitako instalazioei, betiere hiru orduko denbora bat egunero etenik gabe erabiltzen eta epe tarte batean, igarotzen dena instalazio horien titulartasuna edo erabilera eskubideak eskuratzen direnetik, detektatutako iruzurra konpondu duen arte, betiere luzatu barik guztira urte bat baino epe luzeago batera.

— 2. kasua. Faltsu badira jarritako kontagailuaren edo neurgailuaren markaketak, edozein prozeduraz edo gailuz funtzionamendu okerra eraginda, iruzurraren kopurua likidatzeko, oinarri gisa hartuko da nominalaren kapazitatea, eta denbora zenbatuko da hiru ordu egunear, kontagailua azkenengoz egiaztatu zen egunetik; nolahi ere, denbora hori ez da izango urte bat baino luzeagoa, eta deskontatuko dira denbora epe horretan iruzurraren egileak ordaindu ditu kontsumoak.



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

— 3. kasua. Iruzurra egin bada deribatuz emaria kontagailua baino lehen, likidatuko da lehen kasuan bezala, hornidura kontraturik ez badago, eta deskonturik egin gabe kontagailuak neurtutako ur kontsumoagatik.

4. kasua. Kasu honetan, behar ez bezala erabilitako uraren kopurua likidatuko da Arrasateko Udalaren alde, eta kontsumoari aplikatuko zaio diferentzia bat indarrean dagoen tarifaren artean, likidazioa egin den unean eta urari benetan emandako erabilerari dagokiona, eta kontratatutako erabileran oinarrituta aldi horretan aplikatu den tarifaren artean. Aldi hori ezingo da zenbatu urte bat baino gehiagotan.

Kontagailuaren emari nominaltzat hartuko dira, ez bada kontrako frogaren bat dagoela, taula honetan hartutakoak, kontagailuaren diametroaren arabera:

<i>Kalibrea / mm.</i>	<i>Emari nominala (m³/h)</i>
13 mm	1,5
15 mm	1,5
20 mm	2,5
25 mm	3,5
30 mm	6,0
40 mm	10,0
50 mm	50,0
65 mm	65,0
80 mm	120,0
100 mm	180,0
125 mm	180,0
150 mm	250,0
200 mm	480,0

Kasu guztietan, iruzurraren zenbatekoa, atera dena aurreko pasarteetan ezarritako aginduen arabera, lotua egongo da fakturatu beharreko kontzeptu guztiak aplikatzeari, baita ere, indarrean dauden zergak aplikatzeari.

Arrasateko Udalak egiten dituen likidazioak interesdunei jakinaraziko zaizkie.

XII. KAPITULUA

ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA



Esp. kodea: 2016ZZER0104
Titularra: MANTENTZE ETA AUZOAK
OBRA ZERBITZU

Gaia: Arrasateko Udalaren ur zerbitzuaren ziklo integrala arautzen duen ordenantza.
Hasiera data: 2016/05/19

73. Artikulua. Baldintza orokorrak.

Arrasateko Udalaren jarduerak eta akordioak inpugnatzea egokia izan badaiteke ere, Toki Administrazioari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritako prozeduraren arabera, erreklamazioak, zalantzak eta zerbitzuak emateko baldintzen interpretazioak erabakiko ditu administrazio publikoko erakunde batek, kasu bakoitzean eskuduna denak.

Aurreko pasartean zer ezarri den kontuan hartu gabe, Justiziako Auzitegiei dagokie esku hartzea haien jurisdikzioaren gai propio guztietan, interesdunak eskatuta.

Edozelan ere, auziak planteatzen badira abonudunaren eta Arrasateko Udalaren artean, Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuetatik eratorritako harremanen ondorioz, horiek egongo dira Donostiako eta Bergarako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean, beste ezein eskumeni uko eginez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Arketek, erregistro kaxek eta kontagailuen gelek, arau hau indarrean sartzen den egunean behar badute giltza bat kontagailuak irakurri eta mantentzeko, sarraila sistema bat hartu beharko dute, homologatua Arrasateko Udalak, gehienez ere urte bateko epean errekeritu denetik.

2. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunean abonudunek ez badute sinatuta kontratu polizarik, ez dute sinatu beharrik izango aldagetaren bat izan arte hornidurari emandako erabileran edo proposatu arte lekualdatzea edo subragatzea oraingo eskubideak, ez bada Arrasateko Udalak beharrezkotzat jotzen duela horniduraren egoera erreala argitzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzen dira, baliorik gabe eta eraginik gabe utzita, ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik, ezarrita dauden xedapenak, erregelamenduak eta ordenantzak, parekoak edo maila txikiagokoak, eta haren aurka doazenak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.